

Hanif Kureishi

# Intimitatea



Jatorrizko izenburua: *Intimacy*  
Itzulpena: Harkaitz Cano

Azala eta bildumaren diseinua: Esteban Montorio

**Argitaratzea:**

Editorial Txalaparta E.M.L.  
Navaz y Vides 1-2  
78. Posta-kutxa  
31300 Tafalla  
NAFARROA  
Tel. 948 70 39 34  
Faxa 948 70 40 72  
txalaparta@txalaparta.com  
www.txalaparta.com

**Lehenengo edizioa**

Tafalla, 2008ko abuztua

**Copyright**

© Hanif Kureishik  
© Harkaitz Canok  
© Txalapartak

**Maketazioa**

Monti

**Inprimaketa**

RGM

Aita Larramendi, 4  
48012 Bilbo

**ISBN**

978-84-8136-521-4

**Lege gordailua**

BI-2.454-08



GAURIK TRISTEENA DA HAU, banoalako eta ez naizelako itzuliko. Bihar goizean, sei urtez harekin bizi izan naizen emakumea bizikleta hartu eta lanerako bidean denean, geure umeak euren baloi eta guzti parkera eramanez ondoren, maletan zenbait gauza batu, eta inork ikusiko ez nauen esperantzarakin utziko dut nire etxea, Victorrenerako metroa hartzeko. Han, zehaztu gabeko aldi batez, jatortasun osoz eskaini didan gela ñimiñoko lurrean egingo dut lo, sukaldetik gertu. Goizero, arrastaka bultzatuko diot eguraste-armairuraino koltxoi soil meheari. Lumatxa hezea kutxa baten barruan sarrazaziko dut. Ostera ere bere lekuan jarriko ditut sofako kuxinak.

Ez naiz bizimodu honetara itzuliko. Ezin dut. Beharbada, ohartxo bat utzi behar nioke jakinarazteko: «Susan maitea, ez dut itzultzeko asmorik...». Behar-

bada, hobe litzateke bihar arratsaldean deitzea. Edota asteburuan bisita egitea. Xehetasunak ez ditut oraindik erabaki. Ia segurua da ez dizkiodala nire asmoak gaur arratsean edo gaur gauean kontatuko. Geroko utziko dut hori. Zergatik? Hitzak ekintzak direlako, eta gertaerak eragiten dituztelako. Behin esan eta gero, ezin hitzak atzera erretiratu. Itzulbiderik ez duen zerbait egitera noa, eta beldur naiz, zalantzati. Egon dardarka nago, halaxe egon naiz arratsalde osoan, egun osoan.

Hau, beraz, gure azken arratsa da, agian, familia eredugarri, xalo, pitzadurarik gabea bezala; nire azken gaua duela hamar urte ezagutzen dudan emakumearekin, hari buruz ia dena dakidan emakumearekin, harengandik gehiago ezer nahi ez dudanarekin. Laster arrotzak bezala izango gara elkarrentzat. Ez, hori inoiz ez. Inor zauritzea intimitate ekintza behartua da. Historia bat duten elkarren ezagun arriskutsuak izango gara. Bere eskua nire besoan jarri zuen lehen aldi hura... damu dut bizkarra ez eman izana. Zergatik ez ote nuen egin? Ederra modua, denbora eta sentimenduak alferrik galtzekoa. Antzeko zerbait dio berak nitaz. Baina benetan ari gara? Ez daukat gogoia ezpaltzen didaten galdera hauentzat erantzunik.

Bainuontzi izkinan eserita, ertz banatan jarrita dauden bost eta hiru urteko semeei begira nago. Ur azalean dabilta haien jostailuak, plastikozko

animaliak eta biberoiak, eta berriketan ari dira elkarrekin –euren buruarekin ez bada– borroka eta sesiorik gabe, behingoagatik. Bizkorrak eta borrokalariak dira eta jendeak zein ume zorionsu eta txeratsuak diren aipatzen du beti. Banekien gaur goizean zenbait erabaki hartu behar nituela, eta etxetik ateratzeaz nintzela, atea itxi aurretik azken musua eman niezaion erregutuz, honela esan dit zaharrenak: «Aita, jende guztia maite dut».

Mina eta orbainak eragingo dizkien zerbait egingo dut bihar.

Txikienak kotoizko galtza aiseak daramatza, alkandora grisa, tirante urdinak eta poliziaren kaskoa. Jantziak arropa zikinaren saskira botatzen ari naizela, kanpotik datorren zarata batek asaldatu nau. Eutsi egin diot arnasari.

Dagoeneko hemen!

Sarreran barrena dakar bizikleta. Erosketa poltsak saskitik atera ditu.

Hilabeteotan zehar, eta bereziki azken egunotan, edonon nengoela ere –lanean, berriketan, autobusaren zain– ikuspuntu guztietatik begiratu diot haustura honi. Behin baino gehiagotan erratu naiz geltokiz metroan, edota, ohikoa izan arren, ezagutzeko gai izan ez naizen tokiren batean aurkitu dut neure burua. Ez daukat beti argi non na goen, eta hori esperientzia laketgarri bezain neka garria suerta daiteke. Baina egun hauetan, gauza

guztiei buruz behera behatzen diedan sentipena daukat.

Saiatu naiz neure buruari esaten norbait uztea ez dela hari egin diezaiokezun gauzarik okerrenea.

Mingarria bai, baina ez dauka zertan tragedia bat izan. Ezer edo inor utzi ezean, ez litzateke berriarentzat lekurik. Fideltasun eza da aurrera egi-tea bera: besteekiko, iraganarekiko, behialako norbere iritziekiko. Beharbada, egun bakoitzak behar luke bere baitan funtsezko desleialtasun txiki bat gutxienez, edota premiazko traizioren bat. Etorkizunean sinesteko berme bat litzateke, ekintza baikor eta itxaropentsua... gauzak ezberdinak baka-rrik ez, hobeak ere izan daitezkeela sinetsaraziko ligukeen baieztapena.

Eta hala ere, Susan, nire umeak, nire etxea, komuneko leihotik ikusten dudan marihuana landa-rez eta gereziondo loratuz betetako lorategia uzte-ra noa, lurra hautsez eta giroa haize korrontez beterik izango duen Victorren etxeko txokoaren truk.

Duela zortzi urte utzi zuen Victorrek emaztea. Geroztik –pianoa biluzik jo eta hitzordua egiten zu-ten aldiro ondasun guztiak aldean ekartzen zituen prostituta txinatarra kontutan hartu gabe ere–, ez du amodio asegarririk bat bera ere izan. Telefonoak jotzen duen aldiro izu laborrizko dantza modu bati ekiten dio, zelako lotsaizuna ote datorkion asmatu

nahian, eta nondik. Victorrek, ikusten duzuenez, pozik ezean, itxaropena ematen die emakumeei.

Nahiago izaten dugu taberna eta jatetxeetan geratu. Esan beharra daukat, Victor, begiak hondoratuta eta niniak ulertezintasunez eta amorruz zabal-zabalik dituela ilunpean eserita ez dagoenean, eraman erraza, eta are, dibertigarria ere izan daitekeela. Bost axola hari isilik banago, edota ez nahikoa berritsu. Ohituta daukat unean uneko apeta-  
ren arabera gairik gai jauzika ibiltzera. Emazteak oraindik ere zergatik gorrotatzen duen galdetuz gero, esan egingo dit. Nire haurrek bezalaxe, nik ere estimatzen ditut istorio onak; lehendik entzunda badauzkat, batez ere. Xehetasun guztiak, giro-tzea, dena jakin nahi izaten dut. Baina motel antzean hitz egiten du berak, zenbait ingelesek ohi duten legez. Sarritan ez dut jakiten hitz berri bat noiz bururatuko dagoen, ala, beharbada, betirako isiltzeko asmotan. Tarte hauek ongi etorriak dira beti, ameskeriarako aukera diren heinean niretzat. Baina bakarrizketak eta isilaldiak, haize korronteak eta tabernak nahi ote ditut egunero?

Gelan dago orain Susan.

—Zergatik ez duzu komuneko atea sekula ixten? —esan dit.

—Zer?

—Zergatik ez duzu ixten?

Ez zait azalpenik bururatzen.

Kartsuki musukatzen ditu umeak. Maite dut haiekiko duen gogoberotasuna. Zinez eta benetan hitz egiten dugunetan, haiei buruz izaten da beti, haiek esan edo egin duten zerbaiti buruz; gure umeak, guk beste inork ulertuko ez lukeen pasio partekaezina balira bezala.

Susane ez nau ukitu, baina masaila nire ezpainetatik zentimetro gutxira ipini du, bera musukatzekeo makurtu nadin, biontzat umiliagarria dena. Perfume eta kale usaina dario.

Aldatzera joan, eta blue-jeansak eta jertse lodia soinean itzuli da, biontzako ardo edalontzi bana dakarrela.

—Kaixo. Zer moduz zaude?

Zorrotz begiratu nau, arreta jar diezaiodan. Nire gorputza nola bildu eta uzkuratzen zen sentitu dut.

—Ondo —erantzun diot.

Buruaz baietsi eta irribarre egin dut. Ikusten ote du berak zerbait ezberdina gaur nire aurpegian? Salatu ote dut neure burua dagoeneko? Itxura abaildua daukat, ziur. Eskuarki, bizpahiru gai posible prestatzen ditut bera ikusi aurretik, gure arteko elkarrizketak ahozko azterketak balira bezala. Hara, berarekin nagoenean isilik egotea leporatzen dit. Nire golkorako totelka ari naizela jakingo balu, bederen... Gaur aztoratuegi nengoen saiatzeko. Bereziki zaila izan da arratsaldekoa. Eta isilta-

sun, iluntasuna bezala, atsegina izan daiteke; isiltasuna ere hizkuntza bat da. Bikoteek arrazoi onak dituzte isilik egoteko.

Lankideek ataka gaiztoan utzi dutela kontatu dit.

—Ez dira behar luketen bezain onak —esan du.

—Benetan?

Susan une zailak pasatzen ari da argialetxea eskuz aldatu zenetik. Baina iritzi sendoko emakumea da, berehala inor begiko edo begitan hartzen duen horietakoa. Begitan hartu, errazago. Besteok, nik barne, haserrearazi eta zapuztu egiten dugu bera. Asaldatzeko modukoa da, egiaz, ni bere sentimenduak partekatzerara derrigortzeko duen modua, aipatzen duen jendea nik ez ezagutu arren. Bera mintzatu ahala jabetu naiz zergatik uzten dudan zabalik komuneko atea. Ezin dut berarekin gela berean luze iraun, are gehiago haserretu ez dadin zer-bait egin beharko nukeela sentitu gabe. Baina inoiz ez dakit zer egin beharko nukeen, edozein unetan hormaren kontra bultzatu eta ni jipoitzen hasiko den irudipena izaten dut.

Mutikoak garbitu ostean, poliki husten da urez bainuontzia, euren jostailuek isurbidea oztopatzen dutelako. Ez dute erabat hustu arte ateratzeko presarik, eta hustu eta gero ere, bertan eserita jarraitzen

dute, geratzen diren apar arrastoekin biboteak eta kapelak egiten. Azkenean besoetan altxatu dut txikiena. Susanek hartu du bestea.

Txano eta guzti duten xukadera lodietan bildu ditugu. Ilea umel, ur tantak lepoan, nekeak jota, konbatearen osteko boxeolari ñimiño pareta dirudite. Jantzi beharreko pijamari buruzkoa da orain sesioa. Txikienak Batmanen nikiarekin bakarrik etsiko du. Goiz hasi dira euren buruengan konfiantzarik ez izaten, itxuraz. Gugandik ikasiko zuten, noski.

Biberoia eman dio Susanek txikienari, eta bi eskuekin finkatu du honek ahoan, tronpeta-jotzailea balitz bezala. Susanek ilea nola laztantzen dion beha nago, nola musu ematen dion hatzetako tolesetan, nola igurzten dion sabela. Barretxo txoroak egin eta gorputza astintzen du mutikoak. Zelako inozentzia, inork min egin diezagukeenik ez daki-gunekoa. Nola bortxatu inoren inozentzia hori, norbere buruari ere minik egin gabe? Eskolan –zortzi edo bederatzi urte izango nituen–, usain txarra zerion mutiko bat esertzen zitzaidan alboan, familia txiro batekoa. Egun batez, denok zutitu ginenean, hanka eserlekuaren atzera irristatu zitzaion, eta aulkiari indarrean gorantz bultzatuz, propio trabatua zangoa. Ez dut sekula ahaztu min hark mutulari aurpegira iltzatu zion begirada: azalpenik aurkitzen ez zion ustekabeko minarena. Hurkoarekin zintzo edo anker portatzea, norbere aukera da hori.

Beheko solairura eraman ditugu umeak, kuxinen gainean dabilta, txupeteari axolagabeki zupaka, begiak erdi itxita *Oz-eko aztia* ikusten. Udako sargorian landan purua erretzen duen jauntxo parearen gisan. Jengibre galletak eskatzen dizkidate, maiordomoa banintz bezala. Susan konturatu gabe ekarri ditut galletak sukaldetik. Mutikoek, begirada telebistatik apartatzeke inguratu dituzte euren hatz litxarreerok. Filmak aurrera egin ahala, elkarriketak murduskatzeaz gain, soinu efektuei ere laguntzen diete. Handik gutxira, papurak jaso eta haiekin zer egin ez dakidanez, bazter batean bota ditut.

Sukaldean lanean ari da Susan, irratia entzunez, lorategira begira. Hala egitea gustatzen zaio. Bere familiarekin suertatu zaion bizitza, niri nirearekin suertatutakoa bezalaxe, ez da bereziki samurra izan. Orain berealdiko ardurak hartzen ditu erosketak egin eta otordu onak atontzeko. Janari prestatua ekartzen dugunean ere, ez digu uzten egunkari orri, umeen liburu eta gutun mordoilo baten erdian jaten. Ahozapiak atera, kandelak piztu eta botila ardoa irekitzen du, behar bezalako familia otordua izan dezagun, isilune liskar-estaliak barne, eztabaida sutsu eta guzti.

Enkanteak gustatzen zaizkio: altzari, grabatu eta koadro bitxiak erosten ditu, sarritan non edo non belus maiztua erantsita dutenak. Lanpara, ku-

xin eta errezel mordoa daukagu, hauetako hainbat gelaren erdian zintzilik, antzezlan bat hastear balego legez; eginahalak egiten ditut haurrak horietatik zintzilika ez daitezten. Hondo sakoneko besaulkiak, telebistak, telefono aparailuak, pianoak, musika kateak, aldizkari eta liburu argitara berriak daude gela guztietan. Ez da jende asko bizi hain eroso, oparo, aise.

Baina etxean ez naiz etxean sentitzen. Goizean goiz hau uztera noa. Behin betiko. Adio.

Umeengandik gertu eseri naiz lurrean; sabeleko tolesdura bigunen artean nire gerrikoaren belarria kostata topatu, eta askatu egin dut. Behingogatik ez naiz egunkariko berriei edo filmari begira jarri, semeei begiratu diet, haien oinei, belarriei, begiei. Hemen egon gabe hemen nagoen arrats honetan –mamu bat naiz, kasik– ez dut edango, belarrik erreko, eztabaidatuko. Gauza guztiez jabetu nahi dut. Victorrenean nagoenean gogora ekarri eta hari heldu ahal izateko moduko erretratua osatu nahi dut buruan. Gaur gauean nirekin eramateko aukeratu behar ditudan gauza apur horien artean lehenengoa da hori.

Bat-batean, gonbitolarria sentitu eta eskuaz es-tali dut ahoa. Etorri bezala doa larritasuna. Baina ulu egingo nuke orain! Gainbehera bizian datorren hegazkin baten barruan sentitzen naiz. Umeak ahalik eta sarrien ikusiagatik, sumatuko dut hemengo

martxaren falta. Familia bizitzaren nahas-mahasa: umeen ahotsak *Hartzatxo*en *oturuntza* kantuaren al-daki eskatologikoa abestuz; prismatiko berriekin te-lebista ikusten dutenekoa; hirurok Rolling Stonesen musikarekin dantzari, zaharrena kafe-mahaiaren gainean oreka arriskutsuan, bestea sofan hondora-tzen; bizikletan nigandik ziztuan nola urruntzen diren, ujuka; kalean behera eguzkiaren argitan, aterkiak zabalik *Singin' in the Rain* kantatzen dute-nekoa. Behin, artean mutiko zaharrena jaioberri zela, gonbitoka egin zuen nire zapata batean, eta taxian sartuta aireportura bidean nengoen arte ez nintzen jabetu.

Etxera etorri eta umeak bertan ez daudenean ere, egiteko asko izan arren, gelarik gela berantets naiteke, haien aurpegiak atean noiz azalduko zain, haien indar kaotikoak mundua noiz suspertuko.

Bada gauza garrantzitsuagorik? Nire bizitzaren erdian galduta, etxerako biderik gabe, irudika ote dezaket zein esperientzia motari egiten diodan uko, ihes honen truke? Gizonezko, emakumezko, lankide, guraso eta ezagunekin sobera esperientzia emozional bizi izandakoa naiz. Irakurri, hitz egin eta pentsatu egin dut urteetan zehar. Lagunduko ote dit horrek guztiak gaur gauean? Beharbada, zi-r-rara eragin beharko lidake gauzekiko dudan atxi-kimendu faltak, goizean goiz hanka egiteko bezain arin eta aske izateak. Baina zertarako naiz aske?

Aukeratzeko gaitasuna da, ziur aski, askatasunik handiena; askatasunaren bidez bizitzara estekatzten gaituzten betebeharrak bazterrera uztekoa... hainbat aferatan buru-belarri sartzeko gaitasuna.

Nahasmendu honek ez nau berehalakoan bake-tan utziko. Baina goizalderako, zenbait konturi buruz zirt edo zart erabaki beharra daukat. Ez nuke autoerrukian erori behar, ez behintzat premiazkoa den baino luzeago. Ez naute aldar-tearen gorabehe-rek zapuzten, gorabehera horien sakontasunak bai-zik, eta noiz arte iraungo duten ez jakiteak. Apur bat abailduta sentituz gero, beldur izaten naiz urte-beteko depresioaldiak ez ote nauen joko. Nina, mai-tale izan nuena, hotz antzean edo erasokor suma-tzen nuenetan, nigandik aldendu nahian zebilela uste izaten nuen beti.

Etorkizunari diodan beldurra da gaur gauean nagusi den sentimendua. Norbaitek esan lezake as-perduraren aldean hobea dela beldurra, maitasunik gabeko bizitza asperraldi luzea dela. Kezkatuta ego-tea gauza bat da, baina ez naiz batere zinikoa. Era-bakitasunez jokatzeta da nire asmoa. Gaur gauean, egon ziur, gorriak eta zuriak ikusiko ditut.

Pentsatu behar nuke, halaber, zer den bizitzatik eta besteengandik gustuko dudana. Etorkizuna eremu antzu bihurtuko dut bestela, eta bertan edo-zer erretzeko aukera oro ezabatu. Erraza da norbe-re buruaz beste egin gabe norbere burua hiltzea.

Zoritxarrez, etorkizunera heltzeko, oraina bizi beharra daukagu lehenbizi.

Kontu hauek buruan darabiltzadala, itxuraz ia bizitza osoa hondoa jota pasatu eta badaezpadako zoritxar hori betebehartzat onartu duen hainbat jende etorri zait burura. Zenbat denbora xahuarazi didate, azken beltzean, nire depresioaldi anitzek? Hiru urte bai, gutxienez. Urteotan pilatutako sexu gozamen orok irauten duena baino gehiago da hori, inondik ere.

Londresen gizon ezkongabeak dituen abantailak gogoan, adore ematen diot neure buruari, zain ditudan plazer horietan pentsatuz. Bakarrik barre egiten dudala ikusirik, begira dauzkat mutikoak. Gau batez, taberna batean zegoela, East Endeko bere loftera gonbidatu zuen Victor mihian *piercinga* zuen emakume batek. Emakumeari lotze kontuak gustatzen, nonbait; baditu horretarako trepetak. Mihiko belarritakoak kilimak egiten dizkio barrabiletan, Victorren hitzetan, buruan bolatxoa duen barea balitz bezala neskaren mihia. Txantxaren bat, tartean: giltzak galdu ote dituzten. Gero, ipurmasailetan azkura du Victorrek.

Hurrengo egunean, desordutan deitu dit, gosaritan elkartu behar dugula, entzun behar dudala bart gauekoa. Jakinarazi diot gure umezainak, umezainek ohi dutenez, bizitzeko gogoia galdu duela eta zaila dagoela larunbatean, goizean goiz, hau-

rrak nork zaindu topatzea. Baina azkenean heldu naiz kafetegira, pozik etxetik kanpo nagoelako eta norbaitek ekarriko didalako gosaria, beti bezala presaren presaz lurrean buruz behera amaitzen duten ogi xerrak marmeladarekin neronek igurtzi beharrean.

Victorrek ez du xehetasun txikiarik ere ahaztu.

—Eta zu, zer ibili zara? —galdetu du azkenik, jendetasunez.

Hasperen, nik. Txandal zahar bat soinean, ohean garagardoa edaten, eztul egiten, erretzen eta kaskoak jarrita musika entzuten aritu nintzen, Beethovenen koarteto berantiar bat, hain justu.

Ez zen Victor emakume harekin berriro elkartu. Gaurik gehienetan bakarrik ikusten du telebista, patata frijitud lagundutako saltxitxa platerkada bat altzoan duela, ozpinetan beratutako tipulin bat edo birekin bizigarritua.

Beste lagun bat: mozkotea, adin ertaineko alkoholikoa, kontularia ogibidez. Inbidia ematen zuen ezkontzaren erruz oraindik gozatu ezin izan zuen bizimoldeaz zein gogo beroz mintzatzen zen entzuteak. Hasteko eta behin, gogor lan egin zuen nerabazaroko askatasunaz behar bezala gozatu ahal izateko. Emaztea utzi, eta azpiko arropa berria, bizarra egin osterako lozioa, mahuka-bikiak, esku-muturrekoa eta ilea tindatzekoa erosi ditu. Nire aurrean agertu da.

Aho zabalik nago, begiak arranpalo.

Azkenean esan diot:

—Inoiz baino itxura hobea daukazu.

—Beti izan zara adorea ematen trebea –esan dit–. Mila-mila esker.

Elkarri bostekoa estutu eta hor doa solteroen gau klubetara eta dibortziatuen tabernetara. Ezagutu du emakume bat, baina hark ezkon-ohera eramán badu, senarra amorrarazteko besterik ez da izan. Ezagutu du beste bat. «Norbaiten antza hartzen dizut», bota dio emakumeak; norena eta, hileta-etxe bateko jabearen antza, hain zuzen. Nire lagun suminduak erantzun dio ez dela *haren* gorpua gau horretan bilatzen duena. Aurki ohartu da duen adinean garai batean baino askoz ere gehiago ardurua zaiola denbora norekin xahutu. Garai batean desio zuena, ez du jada desio. Ohartzen da, halaber, jendeak tirria arraroak bereganatzen dituela urteen poderioz, eta badagoela makina bat non aukeratu.

—Emaztearekin itzuli behar ote nuke? –galde-tu dit.

—Saiatu –nik, adituaren talaiatik.

Baina emazteak susmo txarrak hartu dizkio, ilea moretu izanak errezeloa sortu dio; istripu baten ondoren gorpua identifikatzeko idatzarazi ote du eskumuturrekoan bere izena? Emazteak ikasi du bizitza ez dela ezinezkoa bera gabe.

Lokartu dira umeak. Goiko solairura igo ditut, bata lehenbizi, bestea gero. Kolore biziko lumatxen pean daude, sorbaldaz sorbalda. Musu bana ematear naizela, begiak zabalik dituztela ikusi dut. Beldur naiz, ez ote dioten ekingo bigarren erasoaldiari. Ez naiz guraso estua, kezkatu egiten naute nire noizean behingo suminaldiek. Gorroto ditut alferrikako zigorrak. Ez nuke nahi haiek nire beldur izaterik; ez nuke nahi haiek inoren beldur izaterik. Ez da nire asmoa haiei deus debekatu edota ezer egiteko gogorik kentzea. Tarteka, hala ere, aginte makila nik daukadala konturatzea gustatuko litzaidake. Ohartu orduko hasi dira jada oherik ohe jauzika. Ateranzko bidea hartu dutenean, haiek harrapatzeko nekatuegi nagoenez, «haserre ahotsa» jarri beste erremediorik ez zait geratu. Haiek ohera ez sartzeko duten seta, horixe ez dut ulertzen. Hilabeteotan, kontzientzia etengo duen une horixe gogoan izateak lagundu dit niri aurrera egiten. Haiei ere arrangura eragiten die egunen joanak, niri bezalatsu, beste era batera baina. Gaur gauean, mutikoek eta nik, gauza berbera nahi dugu: bizitza gehiago.

—Geldirik bazaudete, ipuin bat irakurriko dizuet —esan diet.

Erabat sinetsi gabe begiratu didate, baina liburu bat hartu eta bien artean kokatu naiz. Luze

etzan dira nire parean, tarteka elkarri ostikoren bat emanaz.

Umeentzako ipuin gehienak bezalaxe, ankerra da istorioa, eta umeentzako ipuin gehienetan bezalaxe, aizkolari bat dago tartean. Baina aitak ihes egin ez dien familia konbentzionalaren inguruan dago girotua, ezinbestean. Hain ondo ezagutzen dute mutikoek istorioa, zati bat gainetik pasatu edota zerbait asmatzeko ahalegin oro zapuztu baitidate. Galderak agortu zaizkienean, liburua utzi, gelatik oin puntetan irten eta argia itzali dut. Tapakien pean haien aurpegiak bilatu eta musu ematera itzuli naiz segidan. Gelatik at, haien arnasa aditzen dut. Gau osoa hemen igaro ahal baneza. Entzun dut nola xuxurlatu dioten zerbait elkarri, barre txikietan.

Errota zaharrak ehotako istorio zaharra.

Hasiera-hasieratik, eskolako neskatilekin berekin hasita, eta bereziki maistrekin, emakumeei begira-begira egon natzaie, dendetan, kalean, autobusean, festetan, haiekin egotean zer nola sentituko ote nintzen asmatu nahian, nolako plazerak piztuko ote genituen elkarrekin. Eskolan maistraren mahaipera botako nuen arkatza, lau hankatan jarri eta haren zangoak zelatatzeko. Koherentziarik gabeko heziketa sistemaren erruz, nesken gonekiko

zaletasun porrokatua garatu nuen: oihal eta ehundurekikoa, tolesdunak ote ziren ala ez, gerrira nasai ala estu lotuak, gonak nondik tinkatzen ote ziren finkoago. Antzokietako errezelek gero nola, halaxe azkartu zuten gonek nire jakin-mina. Han azpian zer zegoen jakin nahi nuen. Itxaron beharra zegoen, izango zen aukerarik. Trantsiziozko objektua zen gona; berezko objektua batetik, eta haratago heltzeko modua, bestetik. Huraxe bihurtu zen ezagutza gorenaren erdiesteko nire paradigma. Altxatu nahi dudana gona bat da mundua.

Geroago, emakume bakoitzarekin hutsetik has nintekeela irudikatzen nuen. Iraganik ez zen. Aldiro norbait ezberdina izan nintekeen, norbait berria kasik. Gainerakoengandik neure burua babesteko ere erabili nituen emakumeak. Edonon nengoela ere, desio ninduen emakume xuxurlati baten babesean kizkurtuta banengoen, nire azaletik urrun sentitzen nituen munduaren eztenak. Beste emakume batzuk desiratzeari utz diezaiokeen. Aldi berean, nire aukerak zabalik edukitzea gustatzen zitzaidan; beste emakume batzuk desiratzeak, salbu nindukan bat bakarra maitatzeak dakarren babesgabetasunetik, zaurgarriegi izatetik. Ezagutza sakontzeak baditu bere arriskuak.

Ez da harritzekoa Susan izatea, nire ama alde batera utzita, harekin ia ezer egin ezin dudana emakume bakarra. Baina orain, haiek irrikatzeko beldu-

rrik gabe emakumeekin mintza naitekeen ziurtasuna izanagatik, zalantzak ditut inor ukitu ahal izango ote dudan garai batean bezala, arinkeriaz. Adin batetik aurrera, sexua ez da sekula ardura arina. Ezin go nuke hain gutxirekin konformatu. Zure eskua inoren gorputzean pausatzea, zure ahoa inoren ahoan... Zelako konpromisoa! Norbait aukeratzea bizitza oso bat ageri-agerian uztea da. Eta zeu ageri-agerian utz zaitzaten gonbidapena ere bai!

Agian horixe gertatu zen Ninarekin. Egun batez neska bat gurutzatzen da zure bidean, eta hura irrikatzen duzu. Hamaika bider aztertu dut une hori. Behin eta berriro atera dugu gaia Ninak eta biok, pozez eta harriduraz. Oroi dezaket zein garaia eta argala zen; orduko zirrara hura, zirrara bortitza, behin eta berriro elkartu ginenekoa. Hari buruzko zerbaitek dena aldatu zuen. Aurretik ere desio izan nuen besterik inor, eta ez nekien deus neska hari buruz. Beste mundu batekoa zen Nina. Adin batetik aurrera, ez dituzu utzi nahi izaten gauzak hain halabeharraren menpe. Sinetsi nahi duzu badakizula zer ari zaren egiten. Beharbada horrek azaltzen du egin nuena.



Laguna dut Ian, gaztea eta gay-a. Nire laneguna bukatu ondoren, bazkalorduan neska saldoak ikus-

tera joaten nintzenetan, gustura asko egiten zidan konpainia udan metro geltokien atarietan. Aldea egoten zen kokaleku batetik bestera. «Ezintasunaren erretratua» deitzen zion Ianek nire hari. Bere kasuan, begirada truke bat aski, eta instant batean desagertuko zen, ni non edo non kafea hartuz zain geratzen nintzen bitartean. Baziren bost gizasemeekin larrua jotzen zuen egunak, haien aurpegiak sekula ikusi ez zituen gizonei besoa ukondoraino sartuz. Gauero izan ohi zuen aukerako orgiaren bat.

—Fideltasuna dela eta ez dela, ez ditut sekula ulertu hetero jendeak horrekin darabiltzazuen istiluak —esaten zidan—. Larru jotzea besterik ez da.

—Larrua jotzeak badu bere esanahia —ihardesten nion... Baina zein?—. Tartean edertasuna egoteko, derrigorrezkoa da misterioa.

—Tartean beste pertsonaren bat dagoenean, beti dago misterioa —izaten zen bere erantzuna.

Susane prestatu du dagoeneko mahaia. Ardoa ireki eta zerbitzatu dut. Aise sartzten den horietakoa dela esan dit ardo saltzaileak. Egunotan, ez dago edatekorik aise sartzten ez zaidanik.

Susane jatekoa ekarri eta banatu du. Begiratu bat bota diot gaineratik egunkariari. Jaten hasi ahala, telebista piztu, betaurrekoak jantzi eta aurrerantz makurtu da telesaila ikusteko.

«Jainko maitea», esaten du, zerbait gertatzen den aldiro.

Zaratak buruko mina eragiten dit. Esan beharrik ez dago, drama domestikoa bada nahi duena, mahaiaren beste aldera begiratu besterik ez du.

Baina beste nonbait dago nire soa, lorategiko zuhaitz bati begira, horman zintzilikatutako grabatu bati, ederra edo kuttuntasunez egindakoa den zerbaiten xerka. Telebista gorrotatzen hasia naiz, gainerako komunikabide guztiak bezalaxe. Gazte nintzenean, rock'n'rollaren munduak –axaleko probokazioaren eztandak– berritasuna hezurmamitzen zuen. Konbentzioen eta gauza hilen kontra tinkotasunez borrokatu eta errebelatzen zen. Telebista ere, berritasun bat izan zen gure gaztaroan –ongi etorriak ziren dir-dir egiten zuten mundu horiek guztiak gure egongelan, aitak leihoan antenari hanka puntetan eusteko agintzen zidan bitartean–. Ez ziren hilabete asko pasatzen etxera zerbait berria iritsi gabe: auto bat, hozkailua, garbigailua, telefonoa. Eta denboraldi batez, liluratu egiten gintuen gailu berri bakoitzak. Hamabostaldi bat pasatzen genuen, gutxienez, hari begira, ukitu egiten genuen. Beste guztien pare ginen, baina zenbait jende baino koska bat aurrerago gindoazen. Objektu haiekin askietsirik bizi ginen, ez dakit zergatik.

Orain amorrua eragiten dit arrunkeria, huskeria eta errepikapen jasa horrek. Lagunak dauzkat

telebistan. Etengabe euren lanaz eta soldataz hizketan, politikaz –leporaino sartuta daude–, sekula topatu ez dituzten ikus-entzuleez. Baina telebista piztu eta zerbait mamitsua ikusteko asmoz eseritzen bazara, zapuztu eta ernegatu egingo zaituzte, bortxak, erasorako joerak, adimenaren demokrati-zazio behartuak. Itzaltzera noa, errebeldiaren kontra errebelatzera.

Ziztadak ditut begiko nerbioan. Eskuak dardara batean dauzkadala dirudi. Hutsik sentitzen naiz, kirioak airean, ezpata batek alderik alde zeharkatu banindu bezala. Nire gorputzak badaki zer ari den gertatzen. Gaur ikaratuta banago, okerrago sentituko naiz bihar, eta okerrago etzi, eta are okerrago etzidamu. Eta hau guztia, delako askapen suerte horren izenean. Baina sentimendu lazgarri hauek tarte baten ostean desagertu dira, horixe da, hain zuzen, lazgarri egiten dituen ezaugarrietako bat.

Unibertsitate garaian nik adinako tristurarako joera –handiagoa ez bazen– zuen emakume bat topatuen. Sei urtez bizi izan ginen elkarrekin, Susan eza-gutu aurretik. Gaur egunetik ikusita, denboraldi luzea deritzot. Baina, garai hartan, gauza guztietarako astia izango nuelakoan nengoen, artean. Ohe berean lo egiten genuen gauero, elkarrekin jaten genuen elkarrekin prestatutako otordua. Gure lagunak hezur eta mami ginelakoan zeuden, nahiz eta noizean behin maitaleren bat eduki. Hilean behin edo izaten

genuen sexu harremana elkarrekin. Hirurogeita hamargarren hamarraldiaren amaiera zen, eta harremanak ezaxolatiak eta errazak ziren, harreman erregularretara mugatzeak jendea burutik egiten zuela adostu izan bagenu bezala. Seme-alabarik ez baze-neukan monogamia beharrezkoa ez zela sinetsita bizi nintzela uste dut.

Esan nahi nuke mimosa usainak bera ekartzen didala akordura. Esan nahi nuke bera beti egongo dela nolabait nirekin. Baina iragana da, dolu negarririk isurarazi ez didan iraganeko benetako amodioa.

Ninak ez dit, ordea, gogotik alde egin. Ez naiz hari alde egiten uzteko gauza, oraindik.

Jatera derrigortu dut neure burua. Indarra beharko dut datozen egunetan. Sekula ez zait tomate bat hain irensgaitza iruditu. Bat-batean, Susanek aurpegia ukitu dit hatz puntekin.

—Zu —esan dit.

—Bai?

Beharbada, antzematen dio nire pentsamenduen abiadurari, zurrunbiloari.

—Zu, Jay. Besterik ez. Horixe bakarrik.

Betileak zut begiratzen diot. Bere keinuaren samurtasunak durduzatzen nau. Auskalo nola, auskalo non, maite ote nau nolabait? Maitatua izateko

zoria badu inork, horrek balio duena aintzat hartze-ko gai izan behar luke. Eztabaida bat espero nuen. Erraztu egingo zidakeen, hartara, gaur gauean bertan etxea uztea. Baina badakit oreka eta neurria erakutsi behar ditudala, ez dudala tximak sutan banitu legez atetik ihesi atera behar, edo haluzinazioen menpe banengo legez, edota inor erailtzeko gogoz.

Gaur gauean, neronek jarri nahi diot zorame-nari langa; ez nadin behar baino gehiago zoratu, arren.

Ez da alde egiten dudan lehen aldia. Hara, lehenago ere hanka egin izan dut. Mutikotan nire loge-lan esertzen nintzen, belarriak eskuekin tapatuz, gurasoek amorratuta behean elkarri epelak esaten zizkioten bitartean; ziur nengoen batak bestea hil eta gero bere buruaz beste egingo zuela. Dick Whittingtonen larruan irudikatzen nuen neure burua, musuzapi pinportaduna lotuta zuen makila sorbal-dan berमतuta, oinez urruntzen nintzela. Baina inoiz ez nuen norakorik erabaki. Iparraldera joatea pasatu zitzaidan burutik, baina *Billy Liar* nire film kuttunetakoa izaki, jakinaren gainean nengoen: iparraldeko populu erneak, okasioa edukiz gero, hegoaldera hanka egiten zuen.

Urte batzuen buruan, eguerdi mortal aspergarri batez, etxetik irten eta kostarako trena hartu genuen

Waterloon lagun batek eta biok, eta gero Wight irla-  
rako ferrya, han Bob Dylan *Subterranean Homesick  
Blues* abesten topatuko genuelakoan. Gau osoa pasa-  
tu genuen kanpoan etzanda, euri-langarraren pean,  
tindugabetutako kamiseta eta blue-jeans zirtzilduak  
soinean, hurrengo egunean etxerako bidea hartzeko,  
dezepzioak jota eta beldurrak airean. Etxean sartu  
orduko oihuka hasi zen ama:

—Zer ibili haiz?

—Ez dut berriz egingo, berriz ez... –murduska-  
tu nuen nik.

Asmatu nuen: nire txangoa zebilen bolo-bolo es-  
kola guztian. Aurrez mespretxatu ninduten hippiek  
aintzakotzat hartzen ninduten orain. Festa batera  
gonbidatu ninduten eta euren taldea ezagutu nuen:  
auzoko neska-mutikoak ziren, hamahiru eta hama-  
zazpi urte bitartekoak, ilunabar gehienak eta aste-  
buru guztiak elkarrekin pasatzen zituztenak. Bela-  
rra erre («simaurre» esaten zitzaion orduan) eta  
LSDa hartzen zuten, baita eskola orduetan ere. Kan-  
poan ziren gurasoen etxeetan festak orgia bilaka-  
tzen ziren, neska-mutilek denen bistan larrua jo eta  
bikotekidea trukutzen zuten. Gaztetxo hauetarik  
gehienak zerbait ihesi zebiltzan: norbere etxeko gi-  
roari. Norbere gurasoen alboan jarraitzea ez zela de-  
rrigorrezkoa ikasi nuen. Hanka egitea zeneukan.  
Irakasle txukun samar batek Thom Gunnen poema  
bat erakutsi zidan, *Bidean zoazela* izenekoa, liburu-

tik tarratatu eta Levis galtzen atzeko patrikan neramana. Festetan, lurrean luze etzan eta ozenki irakurtzen nuen: «Beti egongo zara gertuago, geldirik ez bazaude».

Mugitu beharra daukazu.

Berriz ere.

Mahaian leku egin ondoren, bertan eseri da Susan mutikoen festarako gonbidapenak idaztera. Gero, hurrengo asteko erosketa zerrenda egiten ari dela, hala esan dit:

—Ze otordu egingo zenuke gustura?

—Ez dut orain horri buruz pentsatu nahi.

—Zein da zure izozki zapore kuttuna, gaurgaurkoz? Intxaur kurruskatsua ala banilla?

—Ez dakit.

—Harritzekoa zu janariaz pentsatzeko gogorik gabe egotea.

—Bai.

Zenbateraino ezagutzen dudan darabilt gogoan. Burua alde batera okertzeko duen era, bere baitara bilduta dagoenean egiten duen imintzioa. Aurpegi horixe izango zuen azterketa egunetan hamaika urteko neskatoa zenean. Hirurogeita hamar urterekin ere, antzeko itxura izango du zalantzarik gabe, keinuak eta mugimenduak horiexek berak, gure semetako bati gutun bat idaztera eseriko denean.

Nola deskribatuko nuke? Logelan ikasteko goizean goiz jaiki den nerabe gaztearena da bere irudi bereizgarrienetakoa, okerka mahaira jarrita, orain dagoen moduan. Eskolarako jantzi, ogitartekoak prestatu eta etxea utziko zuen, gurasoak artean lo zirela. Cambridgen sartzea lortu zuen, bertan jenderik burutsuena ezagutzeko parada izango zuen jakitun. Intentziaz jokatzeko du lagunak aukeratzeko orduan, beste gauza guztietan bezala.

Aldi berean adin guztiak bizi ditugun arren, ezin esan neskaxa bat bezala ikusi dudarik sekula. Emakume eraginkorra eta ongi antolatua da. Gure hozkailu eta izozkailuak zopa, barazki, ardo, gazta eta izozkiz gainezka daude; lorategiko lore eta zuhaixkak etiketekin izendatuak; umeen arropak garbitu, lisatu eta tolestuak. Egunero iristen da eskatutako egunkari, liburu, alkohol edo janariren bat, eta sarritan, altzariren bat ere bai. Etxeetara banaketak egiten dituzten enpresentzako pasabide derrigortua da gure ataria.

Badago etxea garbitzera etortzen den jendea ere, gure alkandorak lisatzera, lorategia zaindu eta zuhaitzak kimatzera datorrena, umezain finkoak dauzkagu, orduka aritzen direnak, etxeko andereñoak eta *au paira*; horiek denak, masajistak, dekoratzaileak, akupuntoreak, finantza aholkulariak, piano irakasleak, kontu eramaileak, noizbehinkako droga saltzaileak eta, aurrez zerrendatu ditugun edo segidan zerrenda-

tuko ditugun zereginak antolatzeko ardura dutenak ez aipatzeagatik. Dauzkagun tramankulu ugarietako batzuk izorratzen direnean, haiek konpontzera etortzen dira; langile bana, tramankuluko. Arbelean klarionaz idatzita daude aste guztirako argibideak, azpimarra ugarirekin. Susan etengabe ari da etxeko gauzak nola hobetu pentsatzen. Beti dauzka boladan diren film eta disko atera berriei buruzko iritzi sendo, ongi eratuak. Ohean, sukaldaritzako liburuak irakurtzen ditu.

Behe-erdi mailakoa eta errebaletakoa naizenez –pobrezia eta handiustea eskutik doazen leku batekoa, alegia–, argi ikusten dut zein ondo antolatuta dauzkan gauzak klase ertainak, halakoxea baita bere bizilekua, oskol bereizia, gainbabestua. Zerbaitegatik ez dute kontu hau harrotzen: errudun sentitzen dira, jakina, baina onen-onena eskura edukitzeaz ederki asko arduratu ere bai, nola ez ba.

Beste edozein kontutan bezala, ezkontzan ere berehala adosten da etxeko lanen banaketa, arau zerrenda bat sortzearekin batera. Bikoteak, ordea, inoiz ez daude erabat ziur biak ala biak arau berberen arabera jokatzeko ari ote diren, edota aldatu egin ote diren arauok gauetik goizera, bestea aldatzeko batera ohartarazi gabe.

Ez zen bere asmamen zorrotza edo edertasuna izan xarmatu ninduen. Ez zen pasio izugarririk izan bion artean sekula –hortxe dago koska, behar-

bada—. Baina bai, ordea, gozarena. Arazoei aurre egiteko zeukan trebetasun eta abilezia etengabea nuen bereziki gustuko. Ez zen munduaren aurrean ezgai sentitzen, ni sentitzen nintzen bezala. Irmoa eta zuzena zen Susan; bazekien gauzak nola burutu. Inbidia ematen dit bere gaitasunak, hartuko nuke neronek haren erdia. Nire balizko ahuleziaren lepotik bazkatzen da bere sendotasuna. Sendoagoa eta edozertarako gai banintz, ez nuen haren premiarik izango, eta banatu egingo ginen.

Zuhurregia da Susan botere gehiegi bereganatu nahi izateko, baina zehatz eta zuzen jokatzeko du bulegoan. Ez zaio batere kostatzen bere buruarengan konfiantza askirik ez duen jendea ez-eraginkor sentiaraztea. Ez daki nola egin haiek bere indar eta kemenetik babesteko, eta ez du ulertzen nolatan ikus dezakedan nik kontua alde erantzira. Kontuak kontu, lankideak baino bizkorragoa da bera, eta gogorrago lan egin du. Zintzo eta adeitasunez jokatzeke hezi dituzten neska askori bezala, atsegin suertatzea gustatzen zaio. Horixe da, agian, emakume gazteak gaur egungo lan merkatura hain ongi egokitu izanaren arrazoia. Ongi etorriak dira mundu horretan. Honek ez du esan nahi Susan gupidagabe izateko gai ez denik, kontu handiz ibili beharra baitauka bere izaera ulerbera ezkutatzeko. Edonola ere, irudimenik gabeko anbizioa traketsa da beti.

Ni ez bezala, ez da Susan etengabe bere adimenaren distira eta sakontasuna harrotu zale. Norbere buruaren ezagutza, interesgarria izanagatik, konplazentzia ariketa bat iruditzen zaio. Kanporatzen duen sentimendu sorta ez da oso zabala: lotsagarri iritziko lioke bere umorearen gorabeherak kanporatzeari. Honenbestez, nortasunaren zatirik handiena ezkutuan gordetzen du, gainerakoek berataz –eta, bereziki, berak bere buruaz–, pentsatuko dutenaren beldur. Arraroa suerta daiteke esatera noana, baina inork sekula kamusatu edo dezepzionatu ez duenez –bere existentziak ez dio sekula espanturik eragin, ez litzateke inoiz barne kaosean murgilduko–, ez du aldatzeko premiarik izan.

Lanaren martxari eusteko, ordea, larderiaz eta estu joka dezake, koraza gogor eta desatsegin baten pean babesturik. Argi ibili beharra daukazu harekin: oso bakanetan negar egiten duen arren, aise sutzen denetakoa da.

Bitxia da, halaber, nolako erakarmena sentitzen duen aristokrata koskorrekiko, eta are, handiekiko ere, aukera duenetan. Ez daukat ezer esnobismo apurtxo baten kontra, banitate modu patetikoagoen kontra deus ez daukadan bezala; badute beren grazia. Baina Susani, noblezia tituluaren jabe den edonorengana lerratzen zaio begia, zenbait neskatila bateria jotzaileekin soilik ateratzen diren era berean, esate baterako, eta ez sekula baxu jotzaileekin. Ha-

rrigarria iruditzen zait aspaldi usteldu zen eta jada inolako interesik ez duen klase horrekiko erakarrena. Garbi dago jendearen joera gogaikarri anitz jasan beharra dugula, baina zer egin, inondik inora ere aurrean duzun horri nondik heldu ez dakizunean?

Umore onez nagoenean barre eginarazten diot, bereziki bere buruaz, eta maitasun modu bat da hori, bere baitako zati bat identifikatzea lortu dudan seinale. Nire izaera ezaxolatia miresten duela koan nago. Ez dakit beste ezertarako balio ote dudan ala ez, askotan premia handiz bere ondora deitu izan didan arren. Batere nire beharrik ez zuen ama izan nuenez, ez sendatu ezta entretenitu ere ezin nuen emakume bat, alegia, polita izan da niretzat beharrezko sentitzea.

Baina bultzaka zokoratua izan naiz, ez dudalako neure burua aski ezagutzen, gauzak diren bezala izatera ohitu naizelako, eta bihar goizean, elkarri musu eman eta banatu egingo gara.

Tira, ahaztu musuarena.

Beldur diot bakardadeari, beldur diet besteei, beldur diot...

—Barkatu? —esan diot.

Susan hizketan ari da, nire egunerokoa har dezadan eskatu dit.

—Zergatik?

—Zergatik? Ekarri eta kito, axola ez badizu. Ekarri behingoz!

—Ez niri horrela hitz egin. Ez izan hain zakarra.

—Nekatuegi nago egunerokoei buruzko negoziaketa bati ekiteko. Umeak seietan jaikitzen dira. Eguna lanean ematen dut. Zer egiten duzu zuk arratsaldeetan? Lo, akaso?

—Ez zaude ahotsa ez altxatzeko bezain nekatuta.

—Beharko altxatu, ez dago-eta zuri zerbait eginarazteko beste modurik.

—Hori ez da egia.

—Akitu egiten nauzu.

—Baita zuk ni ere.

Astindu bat emango nioke. Ikasiko luke, hartara. Baina etxean politikarien modukoak gara, hala-beharrez. Hala ere, gutxi falta izan zait esateko: «Susan, ez al duzu ulertzen? Ez al duzu ikusten elkarrekin igaro ditugun gau guztien artean, hau dela azken gaua... azken gaua gau guztietan?».

Nire amorrua, eskuarki kontrolpean izan ohi dudana, krudel eta mendekatia izan daiteke. Horrelakotan, aise botako nizkioke purrustadan nire asmo guztiak, eta arindu ederra hartu ere bai, bide batez.

Arinduta sentitu behar nuke, edonola ere. Gaur gauean, ez dut frogatu nahi, preseski, Susan eta biok zein ongi moldatzen garen.

—Ongi da, ongi da, ekarriko dut –nik, marmarka.